



## ANEXO

### **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN (EUSKO JAURLARITZA hemendik aurrera), BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA ARABAKO FORU ALDUNDIAREN ARTEKO HITZARMENA, EUSKARALDIA EKIMENA GAUZATZEKO, EPEALDIA 2021-2024**

### **CONVENIO ENTRE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA COMUNIDAD AUTONOMA DEL PAÍS VASCO (en adelante, GOBIERNO VASCO) Y LAS DIPUTACIONES FORALES DE ÁLAVA, BIZKAIA Y GIPUZKOA, PARA LA EJECUCIÓN DE LA INICIATIVA EUSKARALDIA, PERIODO 2021-2024**

Batetik, Miren Dobaran Urrutia andreak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko Hizkuntza Politikarako sailburuordeak, Eusko Jaurlaritzaren ordezkari eta haren izenean, otsailaren 23ko 73/2021 Dekretua, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak ezarritako eskumenaren arabera.

Por una parte, Dña. Miren Dobaran Urrutia, viceconsejera de Política Lingüística de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en nombre y representación del Gobierno Vasco. En virtud a las competencias definidas en el Decreto 73/2021, de 23 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Cultura y Política Lingüística.

Beste alde batetik, Lexuri Ugarte Aretxaga andreak, Arabako Foru Aldundiko Euskara eta Gobernu Irekiko zuzendariak, Arabako Foru Aldundiaren izenean eta haren Foru Gobernu Kontseiluaren 2021eko azaroaren 30eko 724/2021 Erabakiaren bidez emandako baimenaren arabera, eta Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 1eko 22/2021 Foru Dekretuan esleitutako funtzioekin bat etorriz.

Por otra parte, Dña. Lexuri Ugarte Aretxaga, directora de Euskera y Gobierno Abierto de la Diputación Foral de Álava, en nombre y representación de la Diputación Foral de Álava, en virtud de la autorización conferida por Acuerdo 724/2021, de Consejo de Gobierno Foral de 30 de noviembre de 2021, y conforme a las funciones atribuidas en el Decreto Foral 22/2021, del Consejo de Gobierno Foral de 1 de junio.

Beste alde batetik, Lorea Bilbao Ibarra andreak, Bizkaiko Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuak, Bizkaiko Foru Aldundiaren izenean eta haren ordezkari, Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauak zein Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren Egitura Organikoari buruzko Erregelamendua onesten duen 2020ko abenduaren 29ko 131/2020 Foru Dekretuak ezarritako eskumenen arabera.

Por otra parte, Dña. Lorea Bilbao Ibarra, diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia, en virtud de las competencias definidas en la Norma Foral número 3/1987, de 13 de febrero sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, y en el Decreto Foral 131/2020, de 29 de diciembre, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueba el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia.





Beste alde batetik, Garbiñe Mendizabal Mendizabal andreak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko zuzendari nagusiak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren izenean eta haren ordezkari, urriaren 20ko 14/2020 Foru Dekretuak, Diputatu Nagusiaren Alorraren egitura organiko eta funtzionalak xedatutako eskumenen arabera.

## **ADIERAZI DUTE**

I. Lankidetzeta-hitzarmen honen bitartez Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundien artean lankidetzeta-harreman bat ezartzen da, Euskaraldia ekimena gauzatzeko helburuz.

II. Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizko 10/1982 Legeak bere 26. artikuluan euskararen gizarte-erabilera eta erakundeen alorreko beste zenbait alderditan euskal herri-aginteei eginkizun batzuk ezartzen dizkie. Artikulu horren arabera euskal herri aginteei neurri egokiak hartu beharko dituzte eta beharrezko bitartekoak jarriko gizarte-bizitzako alor guztietan euskararen erabilera sustatzeko, herritarrek salerosketako, kulturako, elkarteetako, kiroltako, erlijiozko edota beste edozein motatako jarduera guztiak euskaraz garatu ahal izan ditzaten.

III. Halaber, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak bere gain hartzen ditu Euskararen Aholku Batzordeak egindako "Euskara 21. Itun berri baterantz" liburuan jasotako XXI. mende hasierako hizkuntza politikaren lehentasunezko ildoak. Batzorde horrek Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) onartu zuen, 2012ko uztailan. Ekintza Plan horrek "Itun berri baterantz" dokumentuan jasotako lehentasunezko ildoak zehaztu ditu eta egokitu egin ditu neurri zehatzen bidez praktikan jartzeko.

IV. Legeak ezartzen du, halaber, euskal herri-aginteei neurri egokiak eta beharrezko bitartekoak hartuko dituztela gizarte-bizitzako esparru guztietan euskararen erabilera sustatzeko.

Por otra parte, Dña. Garbiñe Mendizabal Mendizabal, directora general de Igualdad Lingüística de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en virtud de las competencias establecidas por el Decreto Foral 14/2020, de 20 de octubre, sobre estructura orgánica y funcional del Área del Diputado General.

## **EXPONEN**

I. Mediante el presente convenio de colaboración se establece una relación de colaboración entre la Viceconsejería de Política Lingüística, las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa para llevar a cabo la iniciativa Euskaraldia.

II. La Ley 10/1982, básica de normalización del uso del euskera, en su artículo 26, atribuye a los poderes públicos vascos una serie de funciones en relación con otros aspectos del uso social e institucional del euskera. Según dicho artículo, los poderes públicos vascos deberán adoptar las medidas oportunas y poner los medios necesarios para fomentar el uso del euskera en todos los ámbitos de la vida social, a fin de que la ciudadanía pueda desarrollar en euskera todas las actividades comerciales, culturales, asociativas, deportivas, religiosas o de cualquier otra índole.

III. Asimismo, la Viceconsejería de Política Lingüística asume las líneas prioritarias de la política lingüística de principios del siglo XXI recogidas en el libro "Euskara 21. Hacia un pacto renovado", trabajo realizado por el Consejo Asesor del Euskera. Dicho Consejo aprobó en julio de 2012 el Plan de Acción para la Promoción del Euskera (ESEP). Este Plan de Acción ha concretado las líneas prioritarias recogidas en el documento "Hacia un pacto renovado" y las ha adaptado para llevarlas a la práctica con medidas concretas.

IV. La Ley establece, asimismo, que los poderes públicos vascos tomarán las medidas oportunas y los medios necesarios tendentes a fomentar el uso del euskera en todos los ámbitos de la vida social.



V. Horregatik, foru-aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak Legeak agindutako sustapen-lan hori egiten dute, euskararen erabilera sozialaren arloan lan egiten duten elkarte, erakunde eta partikularrekin hainbat ekimen antolatuz. Horien artean, nabarmentzekoa da EUSKARALDIA ekimena, norbanako, elkarte eta erakunde gehien aktibatu baititu, eta, Jaurlaritzak egindako ikerketaren arabera, herritarren ahozko hizkuntza-ohiturak aldatzeko balio izan duen metodologia bat erabili baitu.

VI. Euskaraldia, euskara ulertzen duten hiztunen arteko ahozko hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa sozial masiboa da, gizartearen gune guztietara zabaldua eta denborari dagokionez mugatua. Euskaraldiaren helburu nagusia herritarren hizkuntza ohiturak aldatuta euskararen erabilera handitzea da. Helduen aktibazioa du oinarri, eta ariketa horretan parte hartu ahal izateko gutxienezko baldintza euskara ulertzea da.

VII. Eusko Jaurlaritzak eta Euskaltzaleen Topagunea Federazioak (hemendik aurrera Topagunea) bultzatutako ekimena da eta mota guztietako erakunde publiko eta gizarte eragileen laguntzarekin Euskal Herri osoan zabaldu dena.

Topagunea ehunka euskara elkarte eta euskaltzale taldek osatzen duten mugimendu zabala da. Mota askotako egitasmoak antolatzen dituen gizarte mugimendu anitza da, Euskal Herrian tokian-tokian jendearen parte hartzea ardatz duena. Haien elkarlanari esker euskarari egunerokotasunean ematen zaion lekua gero eta zabalagoa da.

Bi helburu izan ditu Topaguneak hasieratik: 1) Herrietako euskaltzaleak antolatzea; 2) Euskal hiztun komunitateak euskaraz bizi ahal izateko tresnak sortzea, euskararentzako espazioak zein funtzioak irabaziz.

V. Por tal motivo, las Diputaciones Forales y el Gobierno Vasco realizan esta labor de fomento encomendada por la Ley, organizando diferentes iniciativas con asociaciones, instituciones y particulares que trabajan en el ámbito del uso social del euskera. Entre ellas, cabe destacar la iniciativa EUSKARALDIA, que ha activado a un mayor número de individuos, asociaciones y entidades, y que ha utilizado una metodología que, según la investigación llevada a cabo por el Gobierno, ha servido para cambiar los hábitos lingüísticos orales de la población.

VI. Euskaraldia es un ejercicio social masivo para cambiar los hábitos lingüísticos orales entre las personas que entienden el euskera, extendido a todos los ámbitos de la sociedad y limitado en el tiempo. El objetivo principal de Euskaraldia es aumentar el uso del euskera a través del cambio de hábitos lingüísticos de la ciudadanía. Se basa en la activación de personas adultas y el requisito mínimo para poder participar en ese ejercicio es entender el euskera.

VII. Es una iniciativa impulsada entre el Gobierno Vasco y la Federación Euskaltzaleen Topagunea (en adelante, Topagunea) y que se ha extendido por todo el País Vasco con la colaboración de instituciones públicas y agentes sociales de todo tipo.

Topagunea es un amplio movimiento formado por cientos de asociaciones de euskera y grupos de euskaltzales. Se trata de un movimiento social plural que impulsa proyectos de diversa índole, centrado en la participación de la gente a nivel local en Euskal Herria. Gracias a su colaboración, el lugar que se le da al euskera en el día a día es cada vez más amplio.

Topagunea ha tenido dos objetivos desde el principio: 1) Organizar a las personas euskaltzales de los pueblos; 2) Crear herramientas para que la comunidad vasco parlante pueda vivir en euskera, ganando espacios y funciones para el euskera.



Euskaraldia ekimenaren kudeaketan eta koordinazioan jardun dute 2017tik Topaguneak eta Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak. Topaguneak koordinazioa eta kudeaketa tekniko orokorraren ardura hartu du.

Desde 2017, Topagunea y la Viceconsejería de Política Lingüística del Gobierno Vasco han trabajado en la gestión y coordinación de la iniciativa Euskaraldia. Topagunea se ha hecho cargo de la coordinación y gestión técnica general.

VIII. Kontuan hartuta, alde batetik, Eusko Jaurlaritzari aitortzen zaiola, euskararen erabileraren normalizazioa ahalbideratzeko, 1982ko Legea gauzatzeko eta garatzeko aldera erakunde guztien lanak eta ahaleginak aztertze eskumena eta, bestetik, Eusko Jaurlaritzak eta hiru foru-aldundiek Euskaraldia ekimena sustatzeko politika ezberdinak bideratzen dituztela, aipaturiko erakundeek egoki ikusi dute lankidetzako marko bat adostea.

VIII. Teniendo en cuenta que, por un lado, se reconoce al Gobierno Vasco la competencia de analizar los trabajos y esfuerzos de todas las instituciones para facilitar la normalización del uso del euskera, en ejecución y desarrollo de la Ley de 1982 y, por otro, que el Gobierno Vasco y las tres diputaciones forales articulan diferentes políticas de impulso de la iniciativa Euskaraldia, las instituciones citadas han considerado oportuno acordar un marco de colaboración.

VIII. Kontuan hartuta, alde batetik, Eusko Jaurlaritzari aitortzen zaiola, topaketa-organo bat antolatze eskumena, ahaleginak aztertu, bideratu eta koordinatzeko, eta 1982ko Legea betetzeko eta garatuz, hainbat erakunde euskararen erabilera normalizatzeko egiten dituzten jarduerak eta, bestetik, Eusko Jaurlaritzak eta hiru foru-aldundiek Euskaraldia ekimena sustatzeko politika ezberdinak bideratzen dituztela, aipaturiko erakundeek egoki ikusi dute lankidetzako marko bat adostea.

VIII. Teniendo en cuenta, por un lado, que se reconoce al Gobierno Vasco la competencia para organizar un órgano de encuentro para estudiar, canalizar y coordinar los esfuerzos y las actividades de las diversas instituciones, para facilitar la normalización del uso del euskera, en cumplimiento y desarrollo de la Ley de 1982 y, por otro, que el Gobierno Vasco y las tres diputaciones forales articulan diferentes políticas de impulso de la iniciativa Euskaraldia, las instituciones citadas han considerado oportuno acordar un marco de colaboración.

IX. Horregatik guztiagatik, administrazio-izaerako hitzarmen hau izenpetu dute klausula hauei jarraiki:

IX. Por todo ello, suscriben el presente convenio de colaboración de carácter administrativo, de acuerdo con las siguientes cláusulas:

## KLAUSULAK

## CLÁUSULAS

### Lehena.- Hitzarmenaren xedea

### Primera.- Objeto del convenio

Hitzarmen honen xedea, Eusko Jaurlaritzaren, Arabako Foru Aldundiaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artean, EAEko eremuan Euskaraldia ekimena ziurtatzeko eta alderdi desberdinak koordinatzeko oinarriak finkatzea da.

El presente convenio tiene por objeto establecer, entre el Gobierno Vasco, la Diputación Foral de Álava, la Diputación Foral de Bizkaia y la Diputación Foral de Gipuzkoa, las bases para asegurar la iniciativa Euskaraldia y coordinar a las diferentes partes en el ámbito de la CAPV.

### Bigarrena.- Hitzarmenaren indarraldia

### Segunda.- Vigencia del convenio



Hitzarmen hau lau urtez izango da indarrean, 2021-2024 epealdian, bosgarren klausulan jasotako arrazoiengatik iraungitzen ez den bitartean.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako epea amaitu aurreko edozein unetan, hitzarmenaren erakunde sinatzaileek aho batez erabaki ahal izango dute hitzarmena, gehienez ere, beste lau urtez luzatzea edo bestela, azkentzea.

### **Hirugarrena.- Alderdi guztiek bere gain hartzen dituzten betebeharrak**

Hitzarmen hau sinatzen duten herri-administrazioek konpromisoa hartzen dute hitzarmen honetan ezarritakoa gauzatzeko beharrezkoak diren neurriak hartzeko, Euskaraldia lehenetsun handieneko proiektutzat hartzen baitute.

Hitzarmenak ez du eduki ekonomikorik. Partaideek erakunde sinatzaileen aurrekontuetan eragina duen edozein proiektu gauzatea proposatzen badute, beren araudiak proiektu horretarako eskatzen duten prozeduraren arabera bideratu beharko dira bitartekoak.

#### **3.1. Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren betebeharrak**

- a) Hitzarmenaren baitan sortuko den Jarraipen Batzordean Euskaraldiari egingo dion diru-ekarpenaren berri ematea eta aldi berean ekarpenaren xedea adierazi beharko du.
- b) Euskal Autonomia Erkidego osoan Euskaraldia antolatzeke behar den oinarritzko egitura bermatzeko laguntza ematea:
  - Euskaraldiaren antolaketa eta koordinazio orokorra Topagunearekin

El presente convenio tendrá una vigencia de cuatro años, durante el periodo 2021-2024, en tanto no se extinga por las causas recogidas en la cláusula quinta.

En cualquier momento anterior a la finalización del plazo previsto en el párrafo anterior, las instituciones firmantes del convenio podrán acordar unánimemente su prórroga por un plazo máximo de cuatro años o, en su caso, su extinción.

### **Tercera.- Obligaciones asumidas por cada una de las partes**

Las administraciones públicas firmantes del presente convenio se comprometen a adoptar las medidas necesarias para la materialización de lo establecido en este convenio, al considerar Euskaraldia como un proyecto de máxima prioridad.

El convenio no tiene contenido económico. En el caso de que los partícipes propongan la ejecución de cualquier proyecto que afecte a los presupuestos de las entidades firmantes, los recursos deberán canalizarse de acuerdo con el procedimiento exigido por sus normativas para dicho proyecto.

#### **3.1. Obligaciones de la Viceconsejería de Política Lingüística del Gobierno Vasco**

- a) Informar en la Comisión de Seguimiento que se constituya en el marco del Convenio de la aportación económica a Euskaraldia, indicando al mismo tiempo el objeto de la misma.
- b) Contribuir a garantizar la estructura básica necesaria para la organización del Euskaraldia en toda la Comunidad Autónoma Vasca:
  - Organización y coordinación general del Euskaraldia junto con Topagunea.



batera egitea.

- Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetako dinamizazio orokorraren koordinazioa egitea foru- aldundiekin batera.
- Komunikazio estrategia orokorra egitea, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetako foru-aldundiekin batera.
- Genero-ikuspegia ekintzen diseinu osoan (komunikazio-kanpainak, prestakuntza, etab.) txertatzeko estrategia orokorraren koordinazioa, Euskaraldiaren esparruan ematen diren jarraipen- eta ebaluazio-sistemak.
- Txapen erosketa eta banaketa egitea.
- Coordinación de la dinamización general de los tres territorios históricos de la Comunidad Autónoma Vasca, junto con las diputaciones forales.
- Estrategia general de comunicación, conjuntamente con las diputaciones forales de la Comunidad Autónoma Vasca.
- Coordinación de la estrategia general para integrar la perspectiva de género en todo el diseño de acciones (campañas de comunicación, formación, etc.), sistema de seguimiento y evaluación que se den en el marco de la Euskaraldia.
- Compra y reparto de chapas.

c) Jarraipen Batzordean adostuko diren beste eginkizun batzuk.

c) Otras funciones que se acuerden en la Comisión de Seguimiento.

3.2. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiek beren gain hartzen dituzten konpromisoak

3.2. Obligaciones de las diputaciones forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa

a) Hitzarmenaren baitan sortuko den Jarraipen Batzordean Euskaraldiari egingo dion diru-ekarpenaren berri ematea eta aldi berean ekarpenaren xedea adierazi beharko du.

a) Informar en la Comisión de Seguimiento que se constituya en el marco del Convenio de la aportación económica a Euskaraldia, indicando al mismo tiempo el objeto de la misma.

b) Lurralde bakoitzean Euskaraldia sustatzeko laguntza ematea:

b) Apoyar la iniciativa Euskaraldia en cada territorio:

- Estrategikotzat jotzea hiztunak aktibatzeke ekimen ezberdinak, besteak beste Euskaraldia, eta hori kontuan izatea foru-aldundietako euskararen normalkuntza- eta sustapen-politiketan.
- Considerar estratégicas las diferentes iniciativas de activación de hablantes, entre ellas Euskaraldia, y tenerlo en cuenta en las políticas de normalización y promoción del euskera de las Diputaciones Forales.



- Lurraldeko udalerriekin koordinazioa sustatzea, betiere, antolatuta dauden euskara-zerbitzuen sareen bidez.
  - Lurraldeari egokitutako formakuntza-eta dinamizazio-ekintzak sustatzea, betiere, antolatuta dauden euskara-zerbitzuen sareen bidez.
  - Erakundeen menpe dauden foru-entitateetan Euskaraldiaren sustapen-eta koordinazio-lana egitea.
  - Komunikazio-estrategiatik eratorritako ekintzen koordinazioan parte hartzea.
  - Estrategia orokorraren koordinazioan parte hartzea, Euskaraldiaren esparruan ematen diren ekintzen (komunikazio-kanpainak, prestakuntza, etab.) eta jarraipen- eta ebaluazio-sistemaren diseinu osoan genero-ikuspegia txertatzeko.
  - Promover la coordinación con los municipios del territorio a través de las redes de servicios de euskera organizadas.
  - Promover acciones formativas y de dinamización adaptadas al territorio, a través de las redes de servicios de euskera organizadas.
  - Impulsar y coordinar Euskaraldia en las entidades forales dependientes de las instituciones.
  - Participar en la coordinación de las acciones derivadas de la estrategia de comunicación.
  - Participar en la coordinación de la estrategia general para integrar la perspectiva de género en todo el diseño de acciones (campañas de comunicación, formación, etc.), sistema de seguimiento y evaluación que se den en el marco de la Euskaraldia.
- c) Aurreko puntuetan jasota ez dauden eta Jarraipen Batzordean alderdi guztien adostasunez zehatz daitezkeen bestelako eginkizunak aurrera eramatea.
- c) Ejercer cualesquiera otras funciones que no estén contempladas en los puntos anteriores y que puedan determinarse de común acuerdo en la Comisión de Seguimiento.

#### **Laugarrena.- Jarraipen Batzordea**

4.1. Hitzarmen hau izenpetu eta, beranduenik, handik hilabeteko epean Jarraipen Batzordea eratuko da.

4.2. Ondoko kideoz osatuko da Batzordea:

- a) Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako sailburuordea, batzordeburuari dagokion egitekoa beteko duena.
- b) Arabako Foru Aldundiaren Euskara eta

#### **Cuarta.- Comisión de Seguimiento**

4.1. Firmado el presente convenio, se constituirá en el plazo de un mes, la Comisión de Seguimiento.

4.2. Su composición será la siguiente:

- a) El viceconsejero/La viceconsejera de Política Lingüística del Gobierno Vasco, que presidirá la Comisión.
- b) El director/La directora de Euskera y



Gobernu Irekiko zuzendaria.

Gobierno Abierto de la Diputación Foral de Álava.

- c) Bizkaiko Foru Aldundiaren Euskara zuzendari nagusia.
- d) Gipuzkoako Foru Aldundiaren Hizkuntza Berdintasuneko zuzendari nagusia.

- c) El director/La directora general de Euskera de la Diputación Foral de Bizkaia.
- d) El director/La directora general de Igualdad Lingüística de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

#### 4.3. Idazkaria:

Jarraipen Batzordeak idazkari bat izango du. Idazkari hori Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko kidea izango da: Eusko Jaurlaritzako Euskara Sustatzeko zuzendaria.

#### 4.3. Secretario/Secretaria:

La Comisión de Seguimiento tendrá una persona que ostente el cargo de la secretaría, que estará al servicio de la Administración General de Euskadi (Gobierno Vasco): el director/la directora de Promoción del Euskera del Gobierno Vasco.

Jarraipen Batzordeko idazkariak batzordearen jarduketan legezketasun formala eta materiala zaindu beharko du, organo horren jarduketak ziurtatu beharko ditu, eta eraketarako nahiz erabakiak hartzeko prozedurak zein erregelak errespetatu daitezela bermatu beharko du.

Corresponderá al Secretario/a velar por la legalidad formal y material de las actuaciones de la Comisión de Seguimiento, certificar las actuaciones de la misma y garantizar que los procedimientos y reglas de constitución y adopción de acuerdos son respetados.

#### 4.4. Jarraipen Batzordearen eratzea

Jarraipen Batzordea balio osoz eratzeko, batzarrak egiteko, eztabaidak izateko eta erabakiak hartu ahal izateko, buruak eta idazkariak –edo hala dagokionean ordezkioek– eta organoko kide-kopuruaren erdiak gutxienez egon beharko dute, aurrez aurre edo urrutitik.

#### 4.4. Constitución de la Comisión de Seguimiento

Para la válida constitución de la Comisión de Seguimiento, a efectos de la celebración de sesiones, deliberaciones y toma de acuerdos, se requerirá la asistencia, presencial o a distancia, de la persona que ostente la secretaría, así como de la titular de la presidencia, o en su caso, de las personas que las suplan, y la de la mitad, al menos, de sus miembros.

#### 4.5. Jarraipen Batzordearen funtzioak

Jarraipen Batzordearen eginkizun dira hitzarmen hau behar bezala betetzeko koordinazio- eta kontrol-lanak egitea, ezarritako helburuak betetzen direla bermatzeko, batetik, eta hitzarmena aplikatzeko irizpideak ezartzea eta sor litezkeen interpretazio- eta betetze-arazoak konpontzea, bestetik.

#### 4.5. Funciones de la Comisión de Seguimiento

Entre las funciones de la Comisión de Seguimiento se encuentran, por una parte, llevar a cabo la coordinación y el control para garantizar el correcto cumplimiento del presente convenio y los objetivos fijados, y, por otra, establecer los criterios de aplicación del convenio y resolver los eventuales conflictos de interpretación y cumplimiento que pudieren surgir.





Eginkizun zehatz hauek ere izango ditu:

- Informazioa jasotzea, hitzarmen honen babespean Euskaraldira bideratuko diren diru-ekarpenak eta horiei emango zaien erabileraren berri ematea.
- Epeak eta prozedura ezartzea, hitzarmen honen baitan sortzen diren betebeharren jarraipena egiteko.
- Hitzarmena ederki buru dadin edozein erakunderen aurrean dagozkion izapideak egitea, eta alderdiek elkarrekin ados betetzeko ematen dioten beste edozein egiteko.

Asimismo, asumirá las siguientes funciones:

- Informar sobre la aportación económica destinada a Euskaraldia, al amparo del presente convenio, así como dar cuenta del uso de dicha aportación.
- Establecer plazos y procedimiento para el seguimiento de las obligaciones que se deriven del presente convenio.
- Realizar las gestiones oportunas ante cualquier institución para garantizar el óptimo cumplimiento del convenio, así como cualquier otro cometido que las partes acuerden encomendarle.

Aurreikusten ez den guztiari dagokionez, 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak adierazitakoa beteko da.

Con respecto a todo lo no previsto en el presente convenio, se estará a lo establecido en la Ley 40/2015, de Régimen Jurídico del Sector Público.

Jarraipen Batzordeak egoki ikusiko balu, arloko bestelako eragileek ere parte hartu ahal izango lukete bileretan, betiere, Batzordeak deituta. Hitza izango dute, baina botorik ez.

En caso de que la Comisión de Seguimiento lo estimara oportuno, podrán participar en sus reuniones otros agentes pertenecientes a este ámbito, tras la debida convocatoria por parte de la Comisión, los cuales tendrá voz, pero no voto.

4.6. Bileren deialdiak eta batzorde horren funtzionamendu-araubidea Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen I. tituluaren II. kapituluaren ezarritakoaren arabera izango dira, hitzarmen honen klausuletan ezarritakoa urratzen ez duen orotan.

4.6. Las convocatorias de las reuniones y el régimen de funcionamiento de la mencionada Comisión se atenderán a lo establecido en el Capítulo II del Título I de la Ley 40/2015, de Régimen Jurídico del Sector Público, en todo aquello que no contravenga lo establecido en las cláusulas del presente convenio.

4.7. Jarraipen Batzordearen erabakiak

4.7. Las decisiones de la Comisión de Seguimiento

Batzordearen erabakiak botoen gehiengoaren arabera hartuko dira. Batzordeburuaren botoa erabakigarria izango da.

La Comisión adoptará sus acuerdos, por mayoría de votos. El voto del/de la presidente/a será de calidad.

4.8. Jarraipen Batzordearen bilerak

4.8. Reuniones de la Comisión de Seguimiento

Urtean gutxienez bi bilera egingo dira. Lehenengoa lehenengo seihilekoaren barruan.

Se celebrarán al menos dos reuniones al año. La primera dentro del primer semestre. En dicha



Bilera horretan, erakunde bakoitzak honako alderdi hauek aurkeztuko ditu Jarraipen Batzordean: aurreko ekitaldiko balorazioa eta urteko egitasmoen betetze-maila.

reunión, cada institución presentará en la Comisión de Seguimiento la valoración del ejercicio anterior y el grado de cumplimiento de los proyectos anuales.

Bigarren bilera azken lauhilekoan egingo da, ekimenaren gauzatze-mailari buruzko informazioa partekatzeko eta hurrengo urteari begira aurreikuspena aztertzeko.

La segunda reunión se celebrará en el último cuatrimestre para compartir información sobre el grado de ejecución de la iniciativa y analizar la previsión de cara al próximo año.

Jarraipen Batzordeko buruak aiptariko bilerak egiteko erabakia hartzeko eta aztergaien zerrendak finkatzeko ardura izango du.

La persona que ostente la presidencia de la Comisión de Seguimiento se encargará de acordar la celebración de las citadas reuniones y fijar los órdenes del día.

4.9. Horiez gain, Batzordeko bi kidek gutxienez hala eskaturik, Jarraipen Batzordeko buruak, hilabeteko epean gehienez, ez-ohiko bilerarako deia egin ahal izango du.

4.9. Asimismo, quien ostente la presidencia de la Comisión de Seguimiento podrá convocar una reunión de carácter extraordinario, en el plazo máximo de un mes, a solicitud de al menos dos miembros de la citada comisión.

4.10. Jarraipen Batzordearen buru eta idazkari karguen ordezkotza-sistema finkatzeko, kontuan izango da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 19.4 artikulua dioena.

4.10. Para definir el sistema de sustitución de la presidencia y secretaría de la Comisión de Seguimiento, se atenderá a lo establecido en el artículo 19.4 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

#### **Bosgarrena.- Hitzarmena suntsiarazteko arrazoiak**

Hitzarmen hau suntsiarazi ahal izango da ondoko gertaera hauetariko bat suertatzen denean:

- a) Hitzarmenaren indarraldia luzatzea erabaki gabe igarotzea.
- b) Alderdi sinatzaile guztien arteko adostasuna.
- c) Sinatzaileetako batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea. Kasu horretan, edozein erakundek errekerimendu bat jakinarazi ahal izango dio betetzen ez duen erakundeari, epe jakin batean bete

#### **Quinta.- Causas de resolución del convenio**

El presente convenio podrá resolverse cuando se produzca alguna de las siguientes circunstancias:

- a) El transcurso del plazo de vigencia del convenio sin haberse acordado la prórroga del mismo.
- b) Mutuo acuerdo entre todas las partes suscribientes.
- c) El incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidos por parte de alguno de los firmantes. En este caso, cualquiera de las partes podrá notificar a la parte incumplidora un requerimiento para que cumpla en un determinado plazo con las



ditzan ez-betetzat jotzen diren betebeharrak edo konpromisoak. Errekerimendu hori Jarraipen Batzordearen kideei komunikatuko zaie.

- d) Alderdietako edozeinek berariaz salatzea, bigarren klausulan ezarritakoari kalterik egin gabe.
- e) Hitzarmenaren deuseztasuna deklaratzeko duen erabaki judizialaren bidez.
- f) Hitzarmenean edo beste lege batzuetan aurreikusten den aurrekoen bestelako arrazoiren batengatik.

obligaciones o compromisos que se consideran incumplidos. Este requerimiento será comunicado a la Comisión de Seguimiento.

- d) Denuncia expresa de cualquiera de las partes, sin perjuicio de lo establecido en la cláusula segunda.
- e) Por decisión judicial declaratoria de la nulidad del convenio.
- f) Por cualquier otra causa distinta de las anteriores prevista en el convenio o en otras leyes.

Aipatu diren arrazoiez gain, kontuan hartuko dira beti Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 52. artikulua dioena.

Además de las causas señaladas, se estará siempre a lo dispuesto en el artículo 52 de la Ley 40/2015, de Régimen Jurídico del Sector Público.

#### **Seigarrena.- Hitzarmenaren izaera, interpretazioa eta jurisdikzio eskuduna.**

Hitzarmen honek administrazio-izaera du, eta Jarraipen Batzordeari dagokio haren edukia interpretatzea. Interpretazio horretatik eratorritako arazoak dagozkien administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren eskumenekoak izango dira. Beraz, jurisdikzio horren egitekoa izango da haiek aztertzea.

#### **Sexta.- Naturaleza, interpretación y jurisdicción competente del convenio.**

El presente convenio es de carácter administrativo, por lo que corresponderá a la Comisión de Seguimiento la interpretación de sus contenidos. Todas las cuestiones derivadas de dicha interpretación serán competencia de la jurisdicción contencioso-administrativa, a la que corresponderá su conocimiento.

#### **Zazpigarrena.- Hitzarmenaren sinatzaileen arteko koordinazioa.**

Eusko Jaurlaritzaren Euskara Sustatzeko Zuzendaritza izango da erakundearen arteko koordinazioa bideratuko duena.

#### **Séptima.- Coordinación entre las entidades firmantes.**

La Dirección de Promoción del Euskera del Gobierno Vasco será la responsable de la coordinación entre las entidades firmantes.

#### **Zortzigarrena.- Formalizazioa**

Hitzartutakoa hala ager dadin, eta esan bezala betetzeko, partaideek honako dokumentu honen lau ale izenpetzen dituzte, orrialde guztietan.

#### **Octava.- Formalización.**

A los efectos de formalizar lo convenido y su debido cumplimiento, todas las partes suscriben el presente convenio en cuádruplicado ejemplar y en



cada una de sus páginas.

Era digitalean sinatuz gero, klausula hau ez da kontuan hartuko.

En caso de firmarse de manera digital, esta cláusula no tendrá ningún efecto.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko .....aren .....a / Vitoria-Gasteiz, a xx de xxxx de 2021

**MIREN DOBARAN URRUTIA**

Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako sailburuordea  
Viceconsejera de Política Lingüística del Gobierno Vasco

**LEXURI UGARTE ARETXAGA**

Arabako Foru Aldundiko Euskara eta Gobernu Irekiko zuzendaria  
Directora de Euskera y Gobierno Abierto de la Diputación Foral de Álava

**LOREA BILBAO IBARRA**

Bizkaiko Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua  
Diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia

**GARBIÑE MENDIZABAL MENDIZABAL**

Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko zuzendari nagusia  
Directora general de Igualdad Lingüística de la Diputación Foral de Gipuzkoa